



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Gabonetako Merkatua Vital Fundazioa 2022



ERRONKA GARBIA

INGURUMEN ALDETIK
JASANGARRIA DEN EKITALDIA

Ekitaldiaren Ingurumen-Adierazpena

Vital Fundazioa 2022 Gabonetako Merkatuaren Ingurumen-Adierazpena

Argitaratzailea:

Vital Fundazioa.

Kordoi Etxea. Aiztogile kalea 24. 01001 Vitoria-Gasteiz

www.fundacionvital.eus

Tel.: 945 776 858

Edukia

Intergaiak Iniciativas de desarrollo sostenible S.L.k
egindako dokumentua

Esker ona:

Gure eskerrik beroenak Egibideko boluntario taldeari
Gabonetako Merkatuan parte hartzeagatik

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 17a

AURKIBIDEA



AURKEZPENA 04



ERRONKA GARBIA 05



INGURUMEN-HOBEKUNTZAK 06



KOMUNIKAZIO-EKINTZAK 11



INGURUMEN-INPAKTUA 12



HOBETZEKO ARLOAK 13



AURKEZPENA



Gabonetako Merkatua abenduaren 22an itzuli zen, sei hamarkadako bizitzaren ondoren, eta bi jarduera mota egin ziren aldi berean: nekazaritzako produktuen erakusketa eta salmenta, eta elikagaien sektorerako ez den artisautzaren erakusketa eta salmenta.

Ziurgabetasuna nagusi izan duten edizio biren ondoren, Gabonetako Merkatua normaltasunerara itzuli zen, eta 100 postu eta ohiko merkataz gozatzera hurbildu ziren 10.000 parte-hartzaile ingurura iritsi zen. Arabako hiriburuko Plaza Berrian elikagai naturalak eta km 0koak jarri ziren erakusgai, etxean egindako askotarikoko produktuekin, hala nola haragia eta heste-

beteak, kontserbak, frutak, barazkiak eta ortuariak, likoreak, ardoak eta olioak, ezta eta eratorriak, beste elikagai batzuk, ogia, gozogintza eta gozokiak, gaztak...

Antolatzaileek gonbidatuta salmenta eta dastatze postu gastronomikoak ere izan zituen azokak aurten lehendabizikoz. Erronka Garbia (IHOBE-Euskal Gobernuak) ziurtagiria izan zuen, ekitaldiak ingurumenean eragiten dituen inpaktuak minimizatzeko. Egibideko boluntario-taldeak gogo biziz parte hartu zuten berriro, karbono-aztarna kalkulatzeko mugikortasun-inkestak lortzeko.





Vital Fundazioak hirugarren aldiz jarraian sartu zuen Erronka Garbia ziurtagiria Gabonetako Merkatuan. Ingurumenerako Nazio Batuen Programaren arabera, ekitaldi jasangarria da ingurumenaren gaineko balizko eragin negatiboak minimizatuz eta erakunde antolatzaileentzat eta inplikaturako eragileentzat ondare positiboa utziz diseinatu, antolatu eta gauzatu dena.



Erronka Garbia metodologia 6 jarduerardatzetan aplikatzen da ekitaldiaren fase bakoitzean gertatzen diren ingurumenaren gaineko eraginak minimizatzeke: **Energia, Ura, Mugikortasuna, Erosketak, Hondakinak eta Azpiegiturak.**

Funtsezkoa da interes-talde guztiak antolakuntzarekin lerrokatuta izan daitezela, ekitaldiak eragiten duen ingurumen-inpaktua murrizteko helburuz. Lerrokatze hori ziurtatzeko, komunikazioa eta sentsibilizazioa dira Erronka Garbia ziurtagiriaren tresna garrantzitsuenetako bi.


2022ko Gabonetako Merkatuaren ingurumen-helburuak honako hauek izan ziren:

- Gabonetako Merkatua Erronka Garbia-ekitaldi jasangarria dela jakinaraztea;
- Ekoizle arabarrak eta gertukoak sustatzea;
- Hondakinen kudeaketa selektiboa;
- Mugikortasun jasangarria sustatzea;
- Erabilera bakarreko plastikoa murriztea;
- Energiaren kudeaketa arduratsua;
- Azpiegitura berrerabilgarriak sustatzea;
- Parte hartzeko jarduerak, ingurumen-boluntarioekin.




Mugikortasun-inkesta

Aurreko urteetan bezala, Egibideko ingurumen-boluntarioek mugikortasuna monitorizatu zuten eta ingurumen-sentsibilizazioa lantzen lagundu zuten. Ekitaldian zehar 574 inkesta egin ziren, hau da, emaitza fidagarri baterako eskatutako gutxienekoa (400) gainditu zen. Azpimarratu behar da **personen % 59 oinez iritsi zirela, % 12 tranbian eta % 9 autobusean**. Ia 30.000 km egin zituzten oinez, eta 52.000 km inguru autoz, gabonetan beste leku batzuetatik etorritako bisitariek.



GARRAIO-MOTA


- Autoa (732)
- Auto partekatua (592)
- Motozikleta (87)
- Autobusa (836)
- Tranbia (1.220)
- Bizikleta (610)
- Oinez (5.906)
- Trena (17)
- Hegazkina (0)



% 86 garraio jasangarrian iritsi ziren

Mugikortasunak **23,3 t Co₂** sortzen du

JOAN-ETORRIAK GUZTIRA (km)





Udal-sarera konektatzea

Energia berriztagarriaren erabilera maximizatzeko, **energia berriztagarria** bermatzen duen udal-sarera egin ziren konexio elektrikoak, **jatorrian bermatutako ziurtagiria duen energia**, hain zuzen ere. Konexio hori zuzenean egin zen udaletxetik gertu dagoen koa dro elektridora.



Energia-kontsumo arduratsua

Kontuan hartuta 10.000 pertsona inguru joan zirela Gabonetako Merkatura Plaza Berrira eta dastate gastronomikoen gunera, **79,2 kWh energia elektriko eta 3 litro gasolina** baino ez ziren kontsumitu, ekitaldiaren beharretara egokitutako kontsumoa, eta horri esker, kontzertuez, dastaketez, produktu hoztuez eta jatetxeez gozatzeko aukera izan zen.

EKIPOA	KONTSUMOA (kWh)	ERREGAIA (l)
Kontzertuko anplifikadorea	4	---
Plaza Barriko bozgorailuak	2,1	---
Dastaketa gastronomikoetako megafonia	2,4	---
Hozkailua	0,7	---
Frijigailua 1	45,5	---
Frijigailua 2	24,5	---
<i>Inverter</i> sorgailu intsonorizatua (3)	---	3
GUZTIRA	79,2	3

Energiak
32 kg Co₂ besterik ez zuen
 sortu



Tokiko produktua eta ziurtagiriduna

Arabako eta inguruko ekoizleek beren tokiko produktua nahiz artisau-lanak erakusteko diseinatu-ta egon zen ekitaldia, eta erakusteko orduan kalitateak garrantzi handia duela azpimarratu zuten antolatzaileek: “Beren produktuetan **Eusko Label** edo **Nekazaritza Ekologikoko** kalitate-zigiluak dituzten eskabideak bereziki baloratuko dira”.



Hainbat aukera jasangarri

Tokiko ekoizleek jasangarritasun-keinuak ere egin zituzten; adibidez, talo-postu batek beren **produktuek ez zutela glutenik** nabarmen-tzen zuen, eta proteina horrek arazoak eragiten dizkien pertsoneri ziur asko balioesteko modukoa iruditu zitzaizen keinu hori.

Poltsa konpostagarriak

Ekitaldiaren hasieran, Vital Fundazioak **15.000 poltsa konpostagarri** banatu zituzkien erakusketariei, jasangarritasunaren aldeko keinua egiteko. Fundazioak Gabonetako Merkatuan egiten duen ohiko ekintza da; kasu honetan, birziklatzeko errazak diren poltsa konpostagarriak aukeratu ziren, aurreko edizioetan izan ziren murrizketak desagertzean pertsona kopuruak gora egingo zuela aurreikusitako zelako.





Ingurumen-ziurtagiriaren roll up-a

IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoarekin izandako lankidetzari esker, Erronka Garbiaren *roll up* ofiziala gehitu zen Gabonetako Merkatuan, ingurumen-ardatz guztietan ingurumen-sentsibilizazioa egiteko eta ekitaldi batek Erronka Garbia ziurtagiria izateak dituen abantailak azpimarratzeko. Jakina, **roll up hori berrera-bilgarria** izan zen, eta Vitoria-Gasteizko hainbat ekitaldik sartu ohi dute beren azpiegituran.

Berrerabilitako azpiegitura

Vital Fundazioak antolatutako ekitaldietan ohi-koa da **karpak, pibotak, standak, hesiak eta abar sartzea, eta hurrengo ekitaldietan berrerabiliko dira**. Azpiegitura iragankorraren balio-bizitza luzatzea da helburua, erabilera bat baino gehiago izan dezan, eta ingurumen-inkatu txikiko material jasagarriak txertatzea.



Ekipo isilak eta CE markaketa



Gabonetako Merkatuan, udal-sare elektrikorako konexioak lehenetsi ziren, baina Memoriaren Plazan, hartune elektrikorik ez zegoenez, *inverter* sorgailuak sartu ziren, pibote puzgarrien konpresoreen tentsioa sortzeko. Sorgailu horiek gasolinazkoak ziren, **CE markaketadunak, eta intsonorizatuta zeuden 91 dB-tik beherako soinua izateko**.

HONDAKINAK



Hondakinen plangintza

Antolatzaileek gaikako sailkapenerako edukiontzien balizko kokapenari buruzko planoak bidali zituzten, Plaza Barriaren eta Memoriaren Plazaren jarduera kontuan hartuta. **Edukiontziak jarri ziren sarrera nagusietan**, inguruko tabernetatik sor litezkeen bilgarriak, janaria, ontziak eta beira kontuan hartuta.



Hondakinen monitorizazioa

124 kg paper/kartoi sortu ziren erakusketari-
en salgaien bilgarrietatik, **72,75 kg mistotik**
eta 11,7 kg beiratik. Ez zen hondakin organi-
korik sortu, oraingo honetan barazkiak eta or-
tuariak Santa Barbara plazako merkatuan jarri
zirelako.



KOMUNIKAZIOA

Erronka Garbia ziurtagiria sartzeak, ekitaldiaren egunean sor zitezkeen inpaktuak murrizteaz gain, gizartea ingurumenaren garrantziaz sentsibilizatzea ere badu helburu. Hori dela eta, ekitaldiaren antolatzaileek komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat jarri zuten abian ekitaldiaren aurretik, ekitaldiak iraun zuen bitartean eta ostean. Kanpaina hori jarraian zehaztuko da:

Prentsa-oharraren bidezko komunikazioa:

2022ko urriaren 17an, Gabonetako Merkatuaren prentsa-oharrarekin batera, berariaz iragarri zen Vital Fundazioak ekitaldi jasangarriak egiteko konpromisoa hartu zuela. "Vital Fundazioak garapen jasangarriarekin duen konpromisoaren esparruan, merkatuak, gainera, '**Erronka Garbia – Ingurumenaren aldetik Jasangarria den Ekitaldia**' ziurtagiria izango du. Hartara, minimizatu egingo da mota horretako ekitaldi batek ingurumenean duen eragin negatiboa. Gainera, Vital Fundazioak alde aurretik banatu dizkien **25.000 poltsa konpostagarri** emango dituzte saltzaileek salmentekin batera".

Online eta sare sozialen bidezko komunikazioa

Horrez gain, webguneak eta sare sozialek Gabonetako Merkatuak Erronka Garbia ziurtagiria izango zuela iragarri zuten, parte-hartzea sustatzeko eta ekitaldia ingurumen-inpaktuak minimizatuz burutzeko.

Fundación Vital Fundazioa
3h · 🌐

Un año más, el mercado de Navidad de Fundación Vital es un evento medioambientalmente sostenible reconocido con la certificación Erronka Garbia. Algo que es posible gracias a la labor de las y los voluntarios de Egibide. Mila esker!

Aurten ere, Vital Fundazioaren Gabonetako merkatua ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldia da, Erronka Garbia ziurtagiriarekin aitortua. Hori posible da Egibideko boluntarioen lanari esker. Mila esker!

FUNDACIÓN **Vital** FUNDAZIOA



Plaza España
22 de diciembre
De 09:00h a 16:00h

El Mercado de Navidad se ha celebrado en la capital alavesa durante más de seis décadas y recupera así un escenario de normalidad, adaptado a las recomendaciones vigentes en la actualidad. Los vendedores deberán cumplir los protocolos de control de temperatura, distancias, uso de mascarilla, gel hidroalcohólico y guantes, etc.

Erronka Garbia

Fundación Vital está comprometida con el desarrollo sostenible. Por eso, trabaja para que por segundo año consecutivo el Mercado de Navidad se certifique como '**ERRONKA GARBIA - Evento Ambientalmente Sostenible**', minimizando el impacto negativo que un acto de este tipo puede tener sobre el medio ambiente.




Ekitaldiaren ingurumen-inpaktuaren laburpena VITAL FUNDAZIOAREN GABONETAKO AZOKA 2022

2022ko abenduaren 22a



Karbono-aztarna



- MUGIKORTASUNA
- ENERGIA
- URA
- EROSKETAK
- AZPIEGITURAK
- HONDAKINAK

**GUZTIRA
EKITALDIAK**

26.434

kg CO₂ bal.

PERTSONAKO




3

kg CO₂ bal.



Ur-aztarna



- MUGIKORTASUNA
- ENERGIA
- URA
- EROSKETAK
- AZPIEGITURAK
- HONDAKINAK

**GUZTIRA
EKITALDIAK**

190

m³ H₂O

PERTSONAKO




0,019

m³ H₂O



Ingurumen-aztarna



- MUGIKORTASUNA
- ENERGIA
- URA
- EROSKETAK
- AZPIEGITURAK
- HONDAKINAK

**GUZTIRA
EKITALDIAK**

2.712.024

mPt

PERTSONAKO



271

mPt



EMAITZAK

KARBONO-AZTARNA 26,43 t CO ₂	INTERPRETAZIOA
Mugikortasuna	Mugikortasunari dagokio % 88, batez ere Estatuko beste leku batzuetatik autoz etorritako pertsonengatik, nahiz eta pertsonen % 86 garraio jasangarrietan iritsi ziren.
Erosketak	Erosketei dagokie % 7, batez ere erakusketariak prestatutako elikagaiengatik (taloak, kroketak), poltsa konpostagarriengatik eta erakundeak egindako erosketengatik.
Azpiegiturak	% 4, ekitaldiaren azpiegiturengatik, horien ekoizpen prozesuetan.
Hondakinak	% 1, sortutako hondakin mistoen ondorioz, esaterako papera, beira eta mistoa.
Energia	Elektrizitatearen 79,2 kWh-ak eta <i>inverter</i> sorgailuen 3 l gasolinak ez zuten Co ₂ askorik isuri ekitaldian.
Ura	Ekitaldian ez zen zuzeneko urik kontsumitu.
UR-AZTARNA 190 m ³	INTERPRETAZIOA
	Eragin hori, alde batetik (% 47), erosketek eragindako zeharkako ur-kontsumoak eragin zuen, batez ere elikagaiak jatorrian ekoizteak. Bestalde, ekoizpen-prozesuetan (manufakturan eta erregaien erauzketan) zeharkako ura behar duen mugikortasunari dagokionez (% 46).
INGURUMEN-AZTARNA 2.712 Pt	INTERPRETAZIOA
	Ardatzek ingurumen-inpaktuan izan zuten pisu erlatiboa eta garrantzia islatu zituen. Mugikortasuna (% 87), erosketak (% 8) eta azpiegiturak (% 5) izan ziren ingurumen-aztarnaren erantzuleak, eta ikusten da mugikortasunak nabarmen eragiten duela baliabide fosilen agortzeagatik eta klima-aldaketagatik.

HOBETZEKO ARLOAK

Vital Fundazioaren Gabonetako Merkatuan, Erronka Garbia ziurtagiria izan duen hirugarren edizioan, **ingurumen-hobekuntzak txertatzen** jarraitu zen, ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldia burutzeko, eta ingurumen-komunikazioa eta -sentsibilizazioa indartu ziren, batez ere **komunikazio digitaletik, eta Egibideko boluntarioritza-taldearen ekarpena**, ekitaldi horri leial izaten jarraitu baitzuen.

Hondakinak sailkatzeko prozedurekin zerikusia duten **ingurumen-hezkuntzako ekintzak** egiteko proposamenak aztertuko dira.

Amaitzeko, ekitaldia gabonetako giroan eta onargarritasunez egin zen, antolatzaileek planifikatu zuten bezala, eta **bertaratutakoek gertuko produktuez gozatu zuten berriz ere** egun seinalatu horietan.

ANTOLATZAILEA

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

LAGUNTZAILEAK



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



InterGaiak®

calidad y sostenibilidad

 Egibide